



HERRIKO KONTSEILUAREN BILDUMA

2022ko ABENDUAREN 9a

Kontseilarien kopurua	15	Bi mila eta hogeita bigarren urtean, abenduaren bederatzian, arratseko zortzi eta erdietan, Baigorriko Herriko Kontseilua bildu da, Herriko Etxean, Jaun Auzapezak deiturik. Dei hori 2022ko abenduaren 5ean afixatua izan zen eta 2022ko abenduaren 5ean posta elektronikoz igorria. Auzapeza bilkuraburu zen.
Hor zirenak	13	
Bozkatzaileak	13	

Hor zirenak: ARANGOITS Isabelle anderea, BIDART Betti jauna, COSCARAT Jean-Michel jauna, DUPUY Maddalen anderea, HARISTOY Marie-Agnès anderea, ITHURBURUA Daniel jauna, JUANTORENA Annie anderea, MERCAPIDE Sandrine anderea, MOCHO Frantxoa jauna, MOUSQUES Bernadette anderea, DEGUIRAUD Hélène anderea, CURUTCHARRY Antton jauna eta OLÇOMENDY Betti jauna,

Hor ez zirenak bainan boterea emana zutenak: CLAUZEL Sébastien jaunak Daniel ITHURBURUA jaunari emana zakon, BIBES Jean Paul jaunak DUPUY Maddalen andeari emana zakon

Bilkurako idazkaria: CURUTCHARRY Antton jauna

Parte-hartzaileak errezibitu eta quoruma bazela egiaztatu ondotik, Bilkuraburuak proposatu du gai zerrenda hau aztertzea, eta gai zerrendan puntu bat gehitu zela zehaztu:

- Mugaz Gaindiko Lankidetzarako Europako Elkartean parte hartzea onartzea (MGLEE)
 - Dotazio galdea, polizia-isunen emaitzan hartua (oinetzkoendako bideak, zubietako baranden berritzea, zubiaren garbitzea)
 - “Argi publikoetako obra berriak” eskumena Pirinio Atlantikoetako Energia Lurraldeari eskualdatzearen kariatara, argi instalazioen esku uztearen onartzea.
 - Eskualdatu Gastuak Ebaluatzeako Tokiko Batzordearen (EGETB) txostenaren onartzea
 - Udalbiltzak bultzatu “GEURETIK SORTUAK” proiektua. Herriaren parte hartzea 2023/2024 edizioan
 - Kanpineko aitzinkontua aldatzen duen erabakia
 - Téléthoni emaitza baten egitea onartzea
 - Gaztaina Elkarteari kidetzea
- Galdera orotarik

0. AITZINEKO BILKURAREN BILDUMAREN ONARTZEA

Gai zerrendako gaiak eztabaidatu aitzin, Herriko Kontseiluak 2022ko azaroaren 4ko bilkuraren bilduma onartu du.

1- 2022-69 DELIBEROA- MUGAZ GAINDIKO LANKIDETZARAKO EUROPAKO ELKARTE BATEN SORTZEAN PARTE HARTZEA (MGLEE) – 9.1 NOMENKLATURA

2022ko ABENDUAREN 9ko bilduma

Jaun Auzapezak biltzarrari oroitarazi dako 2017an Herria engaiatu zela mugaz gaindiko Kintoan Barna proiektuan.

Proiektu horri segida emaiteko, Jaun Auzapezak proposatu du Mugaz Gaindiko Lankidetzarako Europako Elkarte baten sortzean parte hartzea. Elkarte horrek bilduko lituzke, besteak beste, Esteribarreko Herriko Etxea, Zubiriko Kontseilua, Eugiko Kontseilua, Bankako, Aldudeko eta Urepeleko Herriko Etxeak.

Auzapezaren azalpena entzunik eta deliberatu ondotik, Herriko Kontseiluak

- **ERABAKI DU Mugaz Gaindiko Lankidetzarako Europako Elkarte baten sortzean parte hartzea.**

Kargutan diren kideen kopurua: 15

Hor ziren kideen kopurua: 13

Bozkatu dutenen kopurua: 15

ALDE: 15

KONTRA: /

ABSTENTZIOA(K): //

2- 2022-70 DELIBEROA- OINEZKOENDAKO BIDE BATEN EGITEA – DOTAZIO GALDEA, POLIZIA-ISUNEN EMAITZAN HARTUA- 7.5 NOMENKLATURA

Jaun Auzapezak Herriko Kontseiluari oroitarazi dako oinezkoendako bide bat eginen dela Gaineke karrikan kokatua den haurtzaindegiaren inguruan. Biltzarrari jakinarazi dako polizia-isunen emaitzan hartu dotazio bat emaiten ahal zeela herriari oinezkoendako bideak egiteko, oinezkoen segurtasuna bermatzeko.

Jaun Auzapezak seinalatu du Herriak polizia-isunen emaitzan hartu dirulaguntza galdatuko dakola Departamenduari.

Jaun Auzapezak irakurri du oinezkoendako bidearen egiteko aitzinkontua, enpresa honek proposatua:

- Carrière et Travaux de Navarre ENPRESA: 12 073.30 € (BEZa gabe).

Auzapezaren azalpena entzunik eta deliberatu ondotik, Herriko Kontseiluak:

- **ONARTU DU** oinezkoendako bidearen egiteko estimatu **12 073.30 €-ko (BEZa gabe)** aitzinkontua
- **GALDATU** dako Departamenduari **polizia-isunen emaitzan hartu dotazioa ukaitea, hots, isunen % 80**

Kargutan diren kideen kopurua: 15

Hor ziren kideen kopurua: 13

Bozkatu dutenen kopurua: 15

ALDE: 15

KONTRA: /

ABSTENTZIOA(K): //

3- 2022-71 DELIBEROA- “ARGI PUBLIKOETAKO OBRA BERRIAK” ESKUMENA PIRINIO ATLANTIKOETAKO ENERGIA LURRALDEARI ESKUALDATZEAREN KARIETARA, ARGI INSTALAZIOEN ESKU UZTEAREN ONESPENA. 9.1 NOMENKLATURA

Ikusirik Pirinio Atlantikoetako Energia Lurraldearen estatutuak, 2022ko apirilaren 9ko deliberoaren bidez aldatuak, Ikusirik Herriaren deliberoa, "Argi publikoen obra berriak" hautuzko eskumena Pirinio Atlantikoetako Energia Lurraldeari eskualdatzeari buruzkoa, Ikusirik 2020ko abenduaren 30eko 11º02020-1791 dekretua, BEZaren konpentsazio funtsaren kudeaketaren automatizatzeari buruzkoa, eta 2020ko abenduaren 30eko erabakia, BEZaren konpentsazio funtsaren esleitzeari buruzko tratamendu automatizatu prozedurarako hautagarri diren kontuak finkatzen dituen,

Jaun Auzapezak Herriko Kontseiluari azaldu dako Herriak Pirinio Atlantikoetako Energia Lurraldeari (lehengo Pirinio Atlantikoetako Energia Sindikatua) eskualdatu dakola argi publikoetako obren obragintzari buruzko hautuzko eskumena (lehenbiziko plantan ezartzea, berritzea, instalazioen hobetzea).

Kontabilitateari doakionez, eskumen hori, orain arte, gastuen eta irabazien kontabilitatean sartzea zen, Sindikatuarendako 45 kontuan (beste norbaitendako operazioak).

Kontularitza molde horiengatik argi publikoen instalazioak Herriko aktiboetan erregistratzen ziren. Hala ere, sindikatuak BEZaren konpentsazio funtsa zuzenki biltzen zuen, eta horrela fakturatzen ahal zuen herrien obretako parte hartzea, BEZaren konpentsazio funtsaren zenbatekoa kendurik.

Baina BEZaren konpentsazio funtsaren esleitzeari buruzko tratamendu automatizatu prozedurarako hautagarri diren kontuen zerrenda finkatzen duen 2020ko abenduaren 30eko ministerio erabakiak 45 kontuan sartu gastuak baztertzeko ditu.

Ondorioz, Sindikatuak ez dezake gehiago BEZaren konpentsazio funtsa bil 2021eko kontualditik goiti egin argi publikoetako obretarako.

Herriek ezin dute ere BEZaren konpentsazio funtsa beren aldetik bildu, obretako hondar parte hartzea hautagarri ez den kontu batean sartzen baita.

Beraz, sindikatua eta kide dituen herriak ez daitezten galtzaile izan BEZaren konpentsazio funtsari begira, Sindikatuak eta Finantza Publikoen Departamendu Zuzendaritzak elkarrekin eraman gogoeta baten ondotik, hau erabaki da: "argi publikoetako obra berriak" eskumena Sindikatuari eskualdatu dakoten herriek herriko argi instalazioak agiri baten bidez esku utzi behar dituzte.

Juridikoki, esku uzte erregimena Sindikatuari ontasun baten gozamina kitorik emaita da, doazkion eskubide eta betebeharrekin, nahiz eta Herriaren jabetzan gelditzen diren.

Onartu da esku uzte hori 2023ko urtarrilaren 1etik goiti egin operazioei aplikatuko zeela eta ez jadanik dauden instalazioei, horiek herrien aktiboetan gelditzen baitira.

Horrela, beraz, herriek argi publikoen instalazioak atxikitzen dituzte eta betebeharrak zenbait beren gain hartzen (asurantza, elektrizitate fakturen ordainketa).

Esku uzte erregimenaren ondorioa: instalazio berriak Sindikatuaren aktiboan ezarriko dira.

Argi publikoen instalazioen esku uzteak ez du dudarik ezartzen Herriak "argi publikoen mantentzeko" eskumenaren atxikitzeko ahalmena, hau ez bazako Sindikatuari eskualdatu.

Kontuei doakienez, esku uzte horren bidez sindikatuak Herriko argietako obren gastuak 2317 kontuan ezar ditzake, eta BEZaren konpentsazio funtsa berreskuratu.

Beraz, Herriaren hondar parte hartzea kalkulatzeko ahalko da BEZaren konpentsazio funtsa kendu eta, erreforma aitzin egiten zen bezala.

Deliberatu ondoan, Herriko Kontseiluak:

ERABAKI DU gauzatzea, 2023ko urtarrilaren 1etik goiti, jadanik Pirinio Atlantikoetako Energia Lurraldeari eskualdatu zazkon "argi publikoetako obrak" (lehenbiziko plantan ezartzea, berritzea, instalazioen hobetzea) eskumenari lotu argi publikoen instalazioak.

Kargutan diren kideen kopurua: 15

Hor ziren kideen kopurua: 13

Bozkatu dutenen kopurua: 15

ALDE: 15

KONTRA: /

ABSTENTZIOA(K): //

4- 2022-72 DELIBEROA- ESKUALDATU GASTUAK EBALUATZEKO TOKIKO BATZORDEAREN (EGETB) TXOSTENAREN ONARTZEA- 9.1 NOMENKLATURA

Ikusirik Lurralde Elkargoen Kode Orokorra;

Ikusirik Zergen Kode Orokorra, bereziki 1609 nonies C artikulua;

Ikusirik 2020ko uztailaren 31ko Elkargoko Kontseiluaren deliberoa, zeinak Euskal Hirigune Elkargoko Eskualdatu Gastuak Ebaluatzeko Tokiko Batzordearen (EGETB) osaketa finkatzen baitu;

Ikusirik Euskal Hirigune Elkargoko Lehendakariaren 2021eko maiatzaren 4ko erabakia, zeinak EGETBren kideen zerrenda finkatzen baitu;

Ikusirik 2022ko urriaren 11ko EGETBk finkatu txostena, eskualdatu gastuen ebaluazioei buruz;

Herriko Kontseiluari galdegin zako bere iritziazen emaitea. Txostengilearen aurkezpena entzunik eta deliberatu ondotik:

- **ONARTU DU** 2022ko urriaren 11ko EGETBren txostena, eranskinean aurkeztua den bezala;
- **BAIMENA EMAN DAKO** Jaun Auzapezari deliberamendu honen aplikatzeko behar diren desmarxa guzaien egiteko, baita ere afera horri doakion dokumentu oro izenpetzeko.

Kargutan diren kideen kopurua: 15

Hor ziren kideen kopurua: 13

Bozkatu dutenen kopurua: 15

ALDE: 15

KONTRA: /

ABSTENTZIOA(K): / /

5- 2022-73 DELIBEROA - GEURETIK SORTUAK ELKARTEAN PARTE HARTZEKO PROPOSAMENA – 9.1 NOMENKLATURA

Jaun Auzapezak azaldu du hautetsien eta Udalbiltzako Lehendakariaren arteko bilkura. “Geuretik sortuak” proiektua esplikatzen du. Proiektu horrek Euskal Herriaren kohesioa xedetzat duten proiektuak sustatzen eta kudeatzen ditu.

“Geuretik sortuak” kultura proiektua da, euskarazko sorkuntzak eta obren hedapena laguntzeko Euskal Herri osoan, Udalbiltzaren kide diren herrien bidez. Sorkuntza-dirulaguntza batean parte hartzea artista egonaldietarako eta antzerki emanaldi itzuli baten eta liburu aurkezpenen laguntzeko.

Helburua da euskarazko literatura, antzerki eta zinema sorkuntzaren sostengatzea.

Jaun Auzapezak oroitarazi du Herriak 2021/2022ko edizioan parte hartu zuela eta Kontseiluari galdegin dako parte hartu nahi duenez 2023/2024ko edizioan.

Auzapezaren azalpena entzunik eta deliberatu ondotik, Herriko Kontseiluak

- **ONARTU DU** Herriak parte har dezan 2023/2024ko edizioan

Kargutan diren kideen kopurua: 15

Hor ziren kideen kopurua: 13

Bozkatu dutenen kopurua: 15

ALDE: 15

KONTRA: /

ABSTENTZIOA(K): / /

6- 2022-74 DELIBEROA- KANPINEKO AITZINKONTUA ALDATZEN DUEN ERABAKIA – 7.1 NOMENKLATURA

Jaun Auzapezak Kontseiluari jakinarazi dako zenbait kreditu ttipiegiak direla, eta aldaketak egin behar zazkola aitzinkontuari, taula honen arabera:

2022ko ABENDUAREN 9ko bilduma

FUNTZIONAMENDUA			
GASTUAK		IRABAZIAK	
Artikulua - operazioa	Zenbatekoa	Artikulua-operazioa	Zenbatekoa
6215- Elkargoka izendatu langileak	-3 020.00		
6061- Metatu ez daitezkeen hornidurak	+ 3 000.00		
658- Kudeaketa arrunteko orotariko kargak	+20.00		
GASTUAK OROTARAT	0.00	IRABAZIAK OROTARAT	0.00

Kargutan diren kideen kopurua: 15
Hor ziren kideen kopurua: 13
Bozkatu dutenen kopurua: 15
ALDE: 15
KONTRA: /
ABSTENTZIOA(K): //

7- 2022-75 DELIBEROA- AFM-TELETHON ELKARTEARI EMAITZA – 7.10 NOMENKLATURA

Jaun Auzapezak joan den azaroaren 22an errezibitu gutuna irakurri du, nun 2022ko Téléthonari emaitza egitea galduta baitzitzakon Herriari.

Jaun Auzapezak Kontseiluari proposatu dako 500€ emaitza Téléthonaren alde.

Jaun Auzapezaren azalpena entzunik eta deliberatu ondotik, Herriko Kontseiluak

ERABAKI DU 500€ emaitza AFM-Téléthon elkarteari

Kargutan diren kideen kopurua: 15
Hor ziren kideen kopurua: 13
Bozkatu dutenen kopurua: 15
ALDE: 15
KONTRA: /
ABSTENTZIOA(K): //

8- 2022-76 DELIBEROA- OINEZKOENDAKO BIDE BATEN EGOKITZEA – DOTAZIO GALDEA, POLIZIA-ISUNEN EMAITZAN HARTUA- 7.5 NOMENKLATURA

Jaun Auzapezak Herriko Kontseiluari oroitarazi dako oinezkoendako bide bat egokituko dela Gainekeo karrikako oinbidean. Biltzarrari jakinarazi dako polizia-isunen emaitzan hartu dotazio bat emaitzen ahal zeela herrieri, oinezkoendako bideak egiteko, oinezkoendako segurtasuna bermatzeko.

Jaun Auzapezak seinatu du Herriak polizia-isunen emaitzan hartu dirulaguntza galdutako dakola Departamenduari.

Jaun Auzapezak irakurri du oinezkoendako bidearen egiteko aitzinkontua, enpresa honek egina:

- Carrière et Travaux de Navarre ENPRESA: 6 469.04 € (BEZa gabe).

Auzapezaren azalpena entzunik eta deliberatu ondotik, Herriko Kontseiluak:

- **ONARTU DU** oinezkoendako bidearen egiteko estimatu **6 469.04 €-ko** (BEZa gabe) aitzinkontua.
- **GALDATU DAKO** Departamenduari **polizia-isunen emaitzan hartu dotazioa ukaitea, hots, isunen % 80**

2022ko ABENDUAREN 9ko bilduma

Kargutan diren kideen kopurua: 15
Hor ziren kideen kopurua: 13
Bozkatu dutenen kopurua: 15
ALDE: 15
KONTRA: /
ABSTENTZIOA(K): //

9- 2022-77 DELIBEROA – HERRIKO ARTE-OBREN KONPONTZEA - DOTAZIO GALDEA, POLIZIA-ISUNEN EMAITZAN HARTUA – 7.5 NOMENKLATURA

Jaun Auzapezak Herriko Kontseiluari oroitarazi dako, 2021eko urriaren 13an Departamenduak egin diagnostikoaren ondotik, Hargaitzeko zubiari baranda berriak ezarri behar zaskola. Biltzarrari jakinarazi dako polizia-isunen emaitzan hartu dotazio bat emaiten ahal zeela herrieri, Herriko arte-obren konpontzeko.

Jaun Auzapezak seinlatu du Herriak polizia-isunen emaitzan hartu dirulaguntza galdatuko dakola Departamenduari.

Jaun Auzapezak irakurri ditu Hargaitzeko zubia konpontzeko aitzinkontuak, enpresa honek proposatuak:

- FFT FONDATIONS enpresa: 7 692.75 € orotarat (BEZa gabe)

Auzapezaren azalpena entzunik eta deliberatu ondotik, Herriko Kontseiluak:

- **ONARTU DU** estimatu 7 692.75 €-ko (BEZa gabe) aitzinkontua
- **GALDATU DAKO** Departamenduari **polizia-isunen emaitzan hartu dotazioa ukaitea, hots, isunen % 80**

Kargutan diren kideen kopurua: 15
Hor ziren kideen kopurua: 13
Bozkatu dutenen kopurua: 15
ALDE: 15
KONTRA: /
ABSTENTZIOA(K): //

10- 2022-78 DELIBEROA – HERRIKO ARTE-OBREN KONPONTZEA - DOTAZIO GALDEA, POLIZIA-ISUNEN EMAITZAN HARTUA – 7.5 NOMENKLATURA

Jaun Auzapezak Herriko Kontseiluari oroitarazi dako Departamenduak erromatar zubiaren diagnostikoa egin zuela 2021eko urriaren 13an. Belar eta landareak kendu dira eta junturak berriz egin. Biltzarrari jakinarazi dako polizia-isunen emaitzan hartu dotazio bat emaiten ahal zeela herrieri, herriko arte-obren konpontzeko.

Jaun Auzapezak seinlatu du Herriak polizia-isunen emaitzan hartu dirulaguntza galdatuko dakola Departamenduari.

Jaun Auzapezak irakurri ditu erromatar zubia konpontzeko aitzinkontuak, enpresa honek proposatuak:

- FFT FONDATIONS enpresa: 4 965.00 € (BEZa gabe)
- FFT FONDATIONS enpresa: 4 350.00 € (BEZa gabe)

Auzapezaren azalpena entzunik eta deliberatu ondotik, Herriko Kontseiluak:

- **ONARTU DITU** obrak egiteko estimatuak diren zenbatekoak
- **Departamenduari GALDATU DAKO** **polizia-isunen emaitzan hartu dotazioa ukaitea, hots, isunen % 80**

Kargutan diren kideen kopurua: 15
Hor ziren kideen kopurua: 13
Bozkatu dutenen kopurua: 15
ALDE: 15

2022ko ABENDUAREN 9ko bilduma

KONTRA: /
ABSTENTZIOA(K): //

11- 2022-79-GAZTAINA ELKARTEARI KIDETZEA – 9.1 NOMENKLATURA

Jaun Auzapezak Gaztaina elkarte eta haren estatutuak aurkeztu ditu: 2018an sortu elkarte da, Ipar Euskal Herriko gaztainaren ekoizpena eta transformazioa balorizatzea du xede.

Lehen gaztainadi handiak baziren gure lurraldean, bereziki Baigura inguruan (Bidarra, Heleta, Luhuso, Makea, Lekorne), eremu horiek gora baitira eta, beraz, gaztainondoendako egokiak. Bertze gaztainadi zahar batzuk zerrendatu dira Ipar Euskal Herriko beste eremu batzuetan (Zuraide, Senpere, Baigorriko ibarra, etab.)

Elkarteak ondare hori babestu eta berritu nahi du, baita ere eremu horretan garatu, arteko mendiguneak molde kontrolatuan eta partekatuan antolatzeko.

Elkarteak pertsona fisikoak edo moralak biltzen ditu, eskubide pribatukoak edo publikokoak.

Jaun Auzapezak proposatu du elkarte horri kidetzea; urtesaria 300 €-koa da.

Jaun Auzapezaren azalpena entzunik eta deliberatu ondotik, Herriko Kontseiluak

ERABAKI DU Gaztaina Elkarteari kidetzea 300 €-ko urteko kidetza ordainduz.

Kargutan diren kideen kopurua: 15
Hor ziren kideen kopurua: 13
Bozkatu dutenen kopurua: 15
ALDE: 15
KONTRA: /
ABSTENTZIOA(K): //

1. **AUZAPEZAK HARTU ERABAKIEN BILDUMA:** HUTSA

2. **GAI OROTARIK**

Herri barnearen antolatzeko ikerketa aitzin-operazionala

2022ko ABENDUAREN 9ko bilduma

Paleografia ikastaldi proposamena

Bilkuran hartu deliberoak 69tik 79rat zenbakituak dira.

Hor ziren kideen zerrenda: : ARANGOITS Isabelle anderea, BIDART Betti jauna, COSCARAT Jean-Michel jauna, DUPUY Maddalen anderea, HARISTOY Marie-Agnès anderea, ITHURBURUA Daniel jauna, JUANTORENA Annie anderea, MERCAPIDE Sandrine anderea, MOCHO Frantxoa jauna, MOUSQUES Bernadette anderea, DEGUIRAUD Hélène anderea, CURUTCHARRY Antton jauna eta OLÇOMENDY Betti jauna,

<u>Auzapezaren izenpedura:</u>	<u>Bilkurako idazkariaren izenpedura:</u>
--------------------------------	---